



ZURE DISEINUA OIHALEAN INPRIMATZEN DUGU

OIHAL 100% ORGANIKOAK

Enpresa eta partikularrentzat

MUSUKOAK



OSAGARRIAK



ARROPA KORPORATIBOA



Homologatua



Ekologikoa



Jasangarria



Sartu gure web orrian: www.musuko.org

Aukeratu produktua > Bidali zure diseinua > Egin eskaria

Jarri gurekin harremanetan:

musukoinfo@gmail.com



LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain



BALIO PROPOSAMENA

“MUSUKO” enpresa, lau bazkideren artean sortu dugu: Alejandro, Oihana, Mikel eta Ioritz. Musuko berrerabilgarriak eta bestelako ehun organikozko produktu pertsonalizatuak saltzen ditugu.



Covid 19ak sortutako egoera dela eta, behar berri bat sortu da azken hilabeteotan: musukoak. Nahitaez erabili beharreko konplementu berria denez, erabilera bakarreko musukoak ugaltu dira gure artean, eta horiek hondakin ugari sortzen ari dira.



Gizartea, maskarak berrerabilgarriak eta ekologikoak izatea eskatzen ari da, homologatuak izateaz gain, ingurumenaren babesarekin gero eta kontzientziatuagoak gaudelako.



Hala nola, musukoak modako konplementu ere bilakatu direnez, jende askok bere estiloa islatzen duen musukoa eskatzen du. Baita enpresetan ere, beraien irudi korporatiboa daramaten musukoak behar dituzte euren langileentzat.

Hau guztiagatik, proiektu honi ekitea erabaki dugu. Kontsumo jasangarriagoa lortzen laguntzeko eta gizartearen eskaera horri erantzuteko.

Gure balio erantsia, nagusiki, pertsonalizazioa da. Bezeroak bidaltzen digun diseinua aukeratutako produktuan irudikatzen dugu, ehun-inprimaketa digitalaren bidez.

Gure proiektuaren balioek garapen jasangarrirako hainbat helbururekin bat egiten dute:

Jasangarritasuna



Kalitatea



Ingurumena



Gertutasuna




Musukoez gain, beste produktu sorta bat ere eskaintzen dugu, merkatuaren dibertsifikazioa bilatuz, bai enpresa eta bai partikularrentzat:

Kamisetak



Mantalak



Poltsak



Zorroak

